

Bilboko Udalak salatu egin du Sañudo PSE-EEko zinegotziaren kontrako erasoa

Udalbatzarra etenda gelditu zen HBko zinegotziek Gerestaren kartelak atera ondoren

Erredakzioa / Bilbo

Bilboko Udalak salatu egin zuen atzo Dimas Sañudo PSE-EEko alkategaiaren etxearen aurka astearte gauean egindako erasoa. Erasoa hori gaitzesteko egindako bilkura eten egin zuten ondoren, apirilaren 13a arte. Eten hori HBko zinegotziek Jose Luis Gerestaren argazkia PPko zinegotzien aulkien ondoan jarri zutenean gertatu zen.

BILBOKO Udaleko osoko bilkura eten egin zuten atzo eta apirilaren 13a arte atzeratu. PSEko Bilboko alkategai Dimas Sañudoren aurkako erasoa gaitzesteko Bozera-maileen Batzordeak onartu zuen idatzia Josu Ortuondok irakurri ondoren gertatu zenak ekarri zuen osoko bilkura etetea.

Idatzia irakurri ostean, hitza eskatu zuen Ibon Arbuluk, HBko zinegotziak, Herri Batasunak indarkeriarik gabeko egoera bat nahi duela eta PP bake prozesua sabotatzen ari dela esateko. Une horretan, HBko beste zinegotzi batek, Dabi Alonsok, Jose Luis Gerestaren argazki bat utzi zuen PPko zinegotzien aulkien ondoan, «PP, ez duzue Euskal Herria geratu» zioen paper batekin.

Herri Batasunako zinegotziek hori egin eta gero, PSEko zinegotziek alde egin zuten eta alkateak saioa bertan behera uztea erabaki zuen, behin-behineko, eta Bozera-maileen Batzordea deitu zuen berriz ere. Bilera horretan atzoko osoko bilkura bertan behera uztea erabaki zuten. Iluntzean, bestalde, PSEk deituta, kontzentrazioa egin zuten Bilboko udaletxe aurrean, eraso hori salatze-ko.

HBk idatziko puntu bakarra sinatu du

Bilboko udalbatzarraren adierazpena EAJk, IUK, ICVk eta Talde Mistoak sinatu zuten osorik. Herri Batasunak adierazpenaren bosgarren puntua baino ez zuen sinatu, eta PSE-EEK eta PPk puntu guztiak sinatu zituzten bosgarren hura izan ezik.

Herri Batasunak sinatu zuen bosgarren puntu horretan dei egiten diete «erantzuz-



LUIS TEJIDO

Dabi Alonso, HBko zinegotzia, Jose Luis Gerestaren argazkia ematen PPko zinegotzi Ascension Pastorri.

kizun publiko eta politiko guztiak dituztenei, baita hiritar guztiei ere, bakea lortzeko itxaropena ez kaltetzeko eta gehien borondate politikoa eta euskal hiritarren eskubideak errespetatuz bake iraunkorra eskainiko duen irtenbide politiko demokratikoa bilatzeko».

Gainontzeko puntuetan, idatzia sinatu duten alderdiek Dima Sañudo zinegotzi sozialistaren aurkako erasoa salatu zuten, «funtsezko eskubideen aurka egiten duelako eta euskal gizarteak eskatzen duen bake bidea bilatzeko orduan oztopo delako».

Sañudok EAJren jarrera salatu du

Dimas Sañudoren etxeko atarian jarri zuten lehergai-luak erreakzio ugari sortu zuen erreskadan. EAJk BBBko lehendakari Javier Atutxaren bitartez gertakizuna gaitzetsi eta elkartasuna adierazi die Dimas Sañudori eta haren familiari. «EAJrentzat basakeria horiek egiten dituztenen itsukeria tamalgarrria da», idatzi horretan BBBk adierazten duenez.

Dimas Sañudok, bere alde-rik, «EAJri kale borrokaren aurrean duen jarrera pasiboa alde batera uzteko» eskatu

zion. Sañudok adierazi zuen bere familiak jasaten duen hirugarren erasoa dela eta «oso kezkatuta» dagoela.

Alderdi abertzaleak salatu zituen «kale borroka fikziozko zerbait balitz bezala tratatzen dutelako eta pertsonak, materialak eta gizarteak kaltetzen dituen gauza erreala delako».

Antonio Basagoitik, Bilboko PPko alkategaiak, Sañudori bakean lan egiten utz diezaiotela eskatu zuen ohar batean. Basagoitik elkartasuna adierazi zion Sañudori eta haren alde egiten diren ekin-tza guztietara joango direla esan zion.

Jose Manuel Ros Ordiziako PSE-EEko zinegotziak utzi egin du bere kargua

Agentziak / Donostia

ORDIZIAKO PSE-EEko zinegotzi bakarrak, Jose Manuel Rosek, bere kargua utzi zuen atzo udalean egindako osoko bilkuran, arrazoi familiarrek argudiatuz. Jose Manuel Rosen abokatu bulegoari birritan eraso diote, urtarrilaren 9an lehen-dabiziko aldiz eta martxoaren 12an azkeneko. PSOEek Gipuzkoan duen erakunde-idazkari Iñaki Pierruguesek esan zuenez, Ros da horrelako egoera bat bizi ondoren bere kargua uztea erabaki duen lehen zinegotzi sozialista. Pierruguesek esan

zuen, halaber, zinegotzien kontrako erasoen helburu bakarra hautetsi hauek izutzea dela, ez daitezen berritoki joan hauteskunde zerrendetan. Buruzagi sozialistak onartu zuen, bestalde, hainbat zinegotzik ez duela aurkeztu nahi hurrengo udal hauteskunde-tarata, eta onartu egin zuen, horrenbestez, PSE-EEK arazoak dituela zerrendak osatzeko, «Gipuzkoan batez ere».

Kale erasoak «eragiten ari diren egonezina» kontuan hartuta, HBri «kale bortizkeriarekin amaitzeko eskatze-

ko» galdegin zion EAJ eta EARI Iñaki Pierrugues erakunde-idazkari sozialistak. «Zuzenbide Estatu demokratiko batean ez du inolako zentzurik», esan zuen Pierruguesek, «Gobernu batek indarkeria ez bazter-tzeaz gain justifikatzen duen alderdi baten laguntza izate-ak».

PSE-EEKo legebiltzarkide Jose Antonio Maturanak, bestalde, Rosen arrazoiak «ulertu eta errespetatzen» dituela esan zuen, «kontuan harturik zer-nolakoa den HBko faxistek herri batzue-tan egiten duten presioa».

Telebista kamerak atxilotetetan egotea «zentzugabekeria» dela dio Mayorrek

■ *Getxo eta Leioako operazioetan gertatutakoari buruz galdetu zion EAJk Senatuan*

Agentziak / Madril

JAIME MAYOR OREJA Espainiako Barne ministroak atzo Senatuan azaldu zuenez, atxilotetetan telebista kamerak egotea «hutssegitea eta zentzugabekeria» da. Mayor Orejak EAJko Pello Caballero senadoreak Getxo eta Leioan egindako polizia operazioari buruz martxoaren 3an egindako galderari erantzun zion hitz horiekin. Espainiako Poliziaren operazio hartan lau gazte atxilotu zituzten eta Tele5 telebista kateko kamerek atxiloten irudiak grabatu zituzten.

Caballerok galdetu zuen ea nork eman zien abisua hedabideei, eta emandako «publizitate» irudiekin atxilotuen errugabetasun presuntzioa urratu zela esan zuen. Mayor Orejak ez zion erantzun zuzenik eman galderari. Azaldu zuenez, kamerek ez lukete han egon behar eta «hutssegitea eta zentzugabekeria» izan zen, baina ez atxilotuen errugabetasun presuntzioa urratu zelako, ikerketarako eta ekintza polizialerako «arriskutsua» izan zitekeelako baizik.

Su-etenetik orain arteko epea ezin dela «dinamikotzat» jo esan du Iruñeko artzapezpikuak

Agentziak / Iruñea

FERNANDO SEBASTIAN Iruñeko artzapezpikuak atzo azaldu zuenez, su-etenetik iragandako hila-betei buruz «ezin daiteke esan oso dinamikoak izan direnik». Haren ustez, «adiskidetzeko prozesua luzea eta zaila izango da», eta talde guztiei eskatu zien bakoitzaren jarrerak «berriz aztertu eta biguntzea». Sebastianek uste du emailtzak premisa ezberdinak erabiliz bakarrik lor daitezkeela. Iruñean bihartik aurrera «bakearen alde» egingo duten ekimenaren berri ere eman zuen atzo artzapezpikuak.